EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE BATZORDEA
JUNTA ELECTORAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
2024 URT. ENE. 26
SARRERA/ ENTRADA 319 IRTEERA/ SALIDA

**Dokumentu mota / Tipo de documento:**
Legez Besteko Proposamena Osoko Bilkuran eztabaidatzeko / Proposición no de Ley para su debate en Pleno.

**Nori zuzendua / Dirigido a:** EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA

**Proposatzailea / Proponente:** ARRUABARRENA, MIKEL (EA-NV)
RICO, EKAIN (ES-SV)

**Data / Fecha:** 2024.01.26

**Espediente zb / Nº de expediente:**

**Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa:** Busturialdea eskualdea eta eskualdea osatzen duten udalerriak suspertzeko plan bat gauzatzeari buruzkoa // Sobre la ejecución de un Plan para la Reactivación de la Comarca de Busturialdea y de los municipios que la integran

ZIOA

Busturialdean dago Euskadiko Biosfera Erreserba bakarra. Urdaibaik 22.000 ha-ko azalera du, eta haren paisaia-aniztasunak babes-maila handia duen altxor naturala da. 1984an, Eusko Jaurlaritzak MaB programan sartzeko proiektua aurkeztu zion UNESCOri. Urte horren amaieran, UNESCOk Urdaibaiko Biosfera Erreserba izendatu zuen.

Erreserba legez arautzen da (Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legea), eta, horrekin batera, lurzoruaren erabilera eta erreserben araubide juridiko eta antolamenduzkoa ezartzen da, babes gorena izan dezan.

Biosferaren erreserbak garrantzi berezia duten eremuak dira dibertsitate biologikoa

JUSTIFICACIÓN

La comarca de Busturialdea acoge la única Reserva de la Biosfera existente en Euskadi. Urdaibai ocupa una extensión de 22.000 Ha. cuya diversidad paisajista, es un tesoro natural que goza de un elevado nivel de protección. En 1984 el Gobierno Vasco presentó ante la UNESCO el proyecto para su integración en su programa MaB. A finales de ese mismo año, la UNESCO declaró la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

La Reserva queda regulada por ley (LEY 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.), estableciendo con ello un régimen jurídico y organizativo de usos y reservas del suelo para su mayor protección.

Las reservas de la biosfera son zonas de especial consideración para la conservación

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

kontserbatzeko, eta garapen ekonomiko eta sozial harmonikoarekin lotuta dute. Pertsonen eta naturaren arteko harremana trantsizio leunetan eta bizikidetza iraunkorrean gertatzen da horietan.

Urdaibaiko erreserbak babes bereziko eremuak ditu bertan bizi diren hegazti eta espezieentzat. Hala, 2000. urtean, EKren Natura 2000 Sareak Urdaibaiko eremuko hiru Kontserbazio Bereziko Eremuen (BKE) eta Urdaibaiko itsasadarreko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (HBBE) kudeaketa-planak onartu zituen.

Urdaibaik biodibertsitatea zaintzeko eta ekosistemak babesteko eginkizuna betetzen du, baina balio behar du, halaber, inguru horretan garapen ekonomiko harmoniko eta iraunkorra ahalbidetzeko, inguru horretan bizi diren pertsonen jarduerekin bateragarria izateko.

Hainbat adierazle sozio-ekonomiko eta eskualdeko baldintza naturalak eta ingurumenekoak kontuan hartuta, eskualdeak beharrezkoak ditu jarduera-eremuak berroneratzeko eta berraktibatzeko jarduera espezifikoak, aurretik beste Lehentasunezko Jarduketa Eremu batzuk izan ziren bezala.

Azken urteotan, bizi izandako testuinguru desberdinetatik eratorritako zailtasunek eta Eskualdeko jarduera garatzeko indarrean dauden baldintza bereziek arriskuan jarri dute inguruko ekonomia eta industria-sare bereziaren eraldatzea, enpresa-proiektu berriak garatzea eta lanpostu berriak sortzea. Busturialdeko eskualdeak garapen sozioekonomikorako estrategia propioa behar

de la diversidad biológica que lo combina con un desarrollo armónico económico y social en la zona. La relación entre personas y naturaleza se produce en transiciones suaves y de convivencia sostenible.

La Reserva de Urdaibai tiene zonas de especial protección para las aves y especies que habitan en él. Tal es así que en el año 2000 la Red Natura 2000 de la CE aprobó los Planes de gestión de las tres Zonas de Especial Conservación (ZEC) del ámbito de Urdaibai y de la Zona de Especial Protección para las Aves (ZEPA) de la Ría de Urdaibai.

Urdaibai cumple su función conservadora de la biodiversidad y de protección de los ecosistemas, pero debe servir también para que se produzca un desarrollo económico armónico y sostenido en la zona, de forma que pueda convivir con las actividades de las personas que viven en la zona.

Consideramos que, en base a la suma de diversos indicadores socio-económicos, así como a las condiciones naturales y medioambientales de la Comarca, es merecedora de considerar el desarrollo de actuaciones específicas para su regeneración y reactivación, como previamente lo fueron el resto de Zonas de Actuación Prioritaria declaradas en Euskadi.

Durante los últimos años, las dificultades derivadas de los diferentes contextos vividos y las condiciones especiales en las que se desarrolla la actividad en la Comarca, han puesto en riesgo la transformación del particular tejido económico e industrial de la zona, el desarrollo de nuevos proyectos empresariales, así como la generación de nuevos puestos de trabajo.

du, bertako errealitatera, biztanleen beharretara eta ingurune naturalera egokitua, eta eremu babestu gisa katalogatzearen ondoriozko baldintzatzaile eta aukeretara egokitua.

Horregatik guztiagatik, LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkeztu da Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

1.- Eusko Legebiltzarrak erabaki du Eusko Jaurlaritzari ematea Busturialdeko eskualdea eta eskualde hori osatzen duten udalerriak suspertzeko Plan bat gauzatzeko ardura.

2.- Busturialdea Eskualdea Suspertzeko Plana egiteko, gogoeta eta diagnostiko bat egin beharko dira, eskualdeko eragile sozial eta ekonomiko nagusiekin partekatuko direnak, eta diagnostiko horretan atzematen diren beharrei erantzungo zaie. Diagnostiko horretan honako alderdi hauek jaso ahal izango dira, besteak beste: ekonomiaren eta industriaren dinamizazioa eta dibertsifikazioa, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako baliabideen ustiapen jasangarrirako kultura berria, inguruko turismoaren kontrola eta horren ondorioak, saneamendua eta ur-hornidura, mugikortasuna eta azpiegituren sustapena, gizarte-kohesioa, kultura-sektorearen dibertsifikazioa edo hiri eta ingurumen-berroneratzea.

La comarca de Busturialdea requiere una estrategia de desarrollo socio-económico propia y adaptada a su realidad; a las necesidades de sus habitantes y de su entorno natural y a los condicionantes y las oportunidades derivados de su catalogación como espacio protegido.

Por todo ello, se presenta la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY para su debate en Pleno:

1.- El Parlamento Vasco acuerda encomendar al Gobierno Vasco la ejecución de un Plan para la Reactivación de la Comarca de Busturialdea y la de los municipios que la integran.

2.- El Plan para la Reactivación de la Comarca de Busturialdea se deberá elaborar partiendo de una reflexión y un diagnóstico que serán compartidos con los principales agentes sociales y económicos de la Comarca y dará respuesta a las necesidades que se detecten en dicho diagnóstico, que podrá recoger aspectos como la dinamización y diversificación económica e industrial, una nueva cultura de aprovechamiento sostenible de los recursos agropecuarios y pesqueros, el control del turismo en la zona y sus efectos, el saneamiento y abastecimiento de aguas, la movilidad y el impulso de infraestructuras, la cohesión social, la diversificación del sector cultural o la regeneración urbana y medioambiental.

EA-NV

ES-SV